PENTSA EZAZUE

HORI BENETAN GERTATU DELA

HOLOKAUSTOAREN IRAKASPENAK

IKASLEENTZAT

JARDUERA

PROPOSAMENA

materiales didácticos de aula
secundaria

GRUPO ELEUTERIO QUINTANILLA

www.equintanilla.com

Aurkibidea

Aurkezpena	03
Hizkuntza eta literatura arloa	06
Gizarte- zientzien arloa	16
Atzerriko hizkuntzaren arloa (Ingelesa)	26
Zientzia esperimentalen arloa	28
Etika e hiritartasun arloa	30
Ikerketa eta web baliabideen jarduerak	34
Beste jarduera batzuk	40
Zer gogoratzen duzu?	42

PENSAD QUE
ESTO HA SUCEDIDO
LECCIONES DEL HOLOCAUSTO

PROPUESTA DE
ACTIVIDADES
PARA EL ALUMNADO

"Auschwitz, ahanzturaren proiektua baldin bazen, erantzun kritiko bakarra memoria izan behar da."
Reyes Mate

Aurkezpena

Egungo gizarteetan, gizarte trinko baten irudia, balio sistema koherente bat eta sozialki onarturiko jokamoldeen inguruan egituraturikoarena behera etorri da eta etengabeko interakzioan dauden ohitura, tradizio, hizkuntza, balio erlijioso eta jokamoldeen mosaiko bati bidea emateko. Uniforme eta homogeneoa zenak konplexu, anitz eta mestizoari eman dio bidea (Ortega, 2004).

Kulturen arteko ezberdintasunek bizitza pertsonala eta kolektiboa aberasten dituzten elementuak dira. Aldiz, gatazka edo eta mehatxu iturri bezala hartuak dira maiz. Desberdintasuna nabarmendu edo balio negatibo eta absolutu bat emateak zurruna eta aldagaitza den identitate kultural bat inposatzea esan nahi du eta inposizio honek, gizartean indiferentzia morala edota bazterkeria eta ezberdinaren segregazioa ere bultzatzen duten jarrerak barneratzen lagundu dezake. Zuberoren hitzetan (2003), horrela bakarrik izan zen posible alemaniarren artean zabaltzea juduei gertatzen zitzaiena nahiz eta ikaragarria izan, ez zuela zerikusirik gainontzeko populazioarekin eta horregatik, ez ziola inori juduei ezik kezkatu beharrik (145 o.)

Besteari gizatasuna kentzen dioten prozesu horiek ekiditearren eta Bakea eta Giza Eskubideen Heziketarako Euskal Planak (2008-2011) iradokitzen duen bezala, ezinbestekoa da trebakuntza, hedakuntza eta informazio ekimenak sustatzea giza eskubideen esparruan kultura unibertsal bat sortzearren. Honetarako, oroimena eta historiak iraganari buruz hausnartuz irakaspenak ateratzeko baliabide paregabeak eman diezagukete eta geure oraina eta etorkizuna lantzen laguntzeko. Holokaustoa izenez ezagutzen dugun hondamendandian sakontzeak honetarako baliabide aproposa eman diezaguke. 2005eko azaroan Nazio Batuek bere estatukideei eskatzen zieten, "etorkizuneko belaunaldie Holokaustoaren irakaspenak erakutsiko dizkieten hezkuntza planak egiteko, etorkizunean genozidioak ekiditearren". Aldiz, azpimarratzekoa da zein urria den Holokaustoaren inguruko pedagogia eta horrek eragiten duen egungo gazteek duten gaiari buruzko azaleko ezagutza. Gabezia honi erreparatu zion Theodor W. Adornok (1998, pp 80-92) jadanik hirurogeigarren hamarkakadan, Auschwitzi jartzen zitzaion arreta

txikiaz kexatzen zenean. Ildo beretik Reyes Matek (2003) nabarmentzen du Holokaustoak presentzia txikia duela ikasketetan orokorrean eta oso txikia hezkuntzaren alorrean.

Holokaustoaren inguruan Estatuan egin den baliabide pedagogiko eraginkorrenetakoa Eleuterio Quintanilla taldeak egin du. Beren abiapuntua izan zen testu-liburuetan Holokaustoaren presentzia, tratamendua eta horrek ikasleen errepresentazioan duen eraginaren azterketa. Ikerketaren emaitzen arabera Ekintza Proposamen bat osatu eta erabili dute Asturiaseko lehen eta bigarren hezkuntzako ikatetxeetan gaia lantzeko. Aldi berean, ekimen hau Estatuan abiarazi diren beste batzuetarako eredu izan da.

Gipuzkoako SOS Arrazakerian egokia iruditu zitzaigun Eleuterio Quintanillako lagunek egindako lana euskaratzea eta horrela Euskal Autonomi Erkidegoko ikastetxeetan bere erabilera sustatzea.

Ekintza Proposamena Panel erakusketaren gehigarri bezala erabiltzeko da (eskatzen duten ikastetxeentzat eskuragarri) eta ikastetxean irakasten diren ikasgai desberdinetara egokiturik, irakaslegoak ikasgelan hausnarketa bultzatu ahal izateko baliabidea da.

Eleuterio Quintanilla taldeari eskertu nahi diogu gurekin etengabe kolaboratzeko izan duen jarrera ona eta EAEn gida hau erreproduzitzeko eskubideak eman izana. Era berean, bere ibilbidean erakutsi duten sentsibilitate paregabea eta konpromezuagatik eskerrak eman, azken hamarkadetan arrazakeriaren aurkako hezkuntzan erreferentzia bilakatu baitira (www.eleuterioquintanilla.com).

Azkenik herri erakunde eta autonomikoei Ekintza Proposamen hau euskaratzeko eman diguten laguntza ekonomikoa eskertu; Eusko jaurlaritzaren Kultura Saileko Gazteria eta Gizarte-Ekintza Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Herri administrazio Saileko Giza Eskubideen Zuzendaritza eta Donostiako Udaleko Gazteria, Hezkuntza, Lankidetza, Berdintasuna eta Giza Eskubideen Zuzendaritza.

IKASLEENTZAT **JARDUERA** PROPOSAMENA



Holokaustoari buruzko Irakurketak

Ikasleriari egokitutako eta gaiarekin lotura duten liburuen irakurketak proposatzen dira, zein eratan lantzen den eta ulermenari literatur testo batek zer eskaintzen dion aztertuko da, erakusketa bisitatuz edo ikasgelan egindako lanaren bidez. Beste maila bateko ezagutza eragiten duen irakurketa denaren hipotesia ereduz adieraztea izango litzateke helburua. Irakurketa derrigorrezkoa, boluntarioa, erakusketa bisitatu aurrekoa ala ondorengoa izan daiteke.

Erakusketan Holokaustoarekin lotura duten hainbat lan literario aipatzen dira

DBHko ikasleentzat bereziki interesgarriak diren lan horiekin eta beste batzuekin jarduerak proposatzen ditugu

- ***El niño con el pijama de rayas***. *Pijama marradun mutikoa*
  Egilea: John Boyne. Argitaletxea: SALAMANDRA.
- ***Sin destino***. Egilea: Imre Kertész. Argitaletxea: EL ACANTILADO.
- ***Diario***. Egilea: Anna Frank. Argitaletxea: PLAZA Y JANÉS.
- ***Un saco de canicas***. Egilea: Joseph Joffo. Argitaletxea: DEL!BRO.

1. PROPOSAMENA
Erakusketaren bisitan oinarritutako jarduerak

1. Panela

- Panelak egiten duen baieztapen honen esanahia aipatu: *"antisemitismo modernoa ez zen jaio taldeen artean existitzen den ezberdintasun handitik baizik eta desberdintasunik ez egoteak suposatzen zuen mehatxuagatik, mendebaldeko gizartearen homogeneizazioagatik eta garai bateko oztopo sozial eta legalak deuseztatzen ari zirelako".*
- Lehendabiziko panelean agertzen den pertsonaietakoren baten bizitzari buruzko testua idatzi. (Albert Einstein, Rosa Luxemburg, Sigmund Freud, Emma Amalie Noether, Gustav Mahler, Lise).



2. Panela

- Gaiaren testuinguruan Joseph Goebbels nazien propaganda ministroaren esaldiak izan dezakeen esanahia iruzkindu: "mila aldiz errepikatutako gezur bat egia bihurtzen da" gogoetaren harira galdera hau egin diezaiokezu zure buruari: sinesten zuten diskurtso bat errepikatzen zuten fanatiko batzuk ziren edo antolatuak zeuden eta beraien ekintzak planifikatzen zituzten gezur horiek nahita eraikitzeraino? Ondoren saiatu aipamen honekin bat datozen gaur egungo testuinguru batzuk aurkitzen, gaur egun ere horrela funtzionatzen al dute propaganda sistemek?
- Hizkuntza eta literaturaren alorretik askotan ikusi izan dugu, guneak karga sinboliko handiz jantzi daitezkeela maiz eta nola hitzik gabeko komunikazioak ere garrantzia duen.
  Panel honetan Hitleren irudia bi argazkitan agertzen da era oso zehatzean. Nola agertzen den azaldu dezakezu? Zein uste duzu dela egoeraren azalpena?

3. Panela

- *"El hongo venenoso"* haur literaturaren liburu bat da eta erregimen naziak Alemaniako haurren artean zabaldu zuen 1938. urtean, haur eta irakasle juduak eskoletatik kaleratu zituzten urte berean ¿zein baliabide poetiko erabiltzen du liburuaren izenburuak eta zein zentzurekin?
- Panel honetan argazki bat azaltzen da argazki-oinean zera dioena: " 1933ko maiatza: juduek eta ezkerreko intelektualek idatzitako liburuen erreketa. Zein da gertakariari buruzko zure iritzia? Ezagutzen al duzu liburuak eta kultura zentzugabekeriaren biktima izan diren beste unerik?

4. Panela

- Panelean agertzen den Ana Frank-en egunkariaren aipamena Jaques-ek Annari beti esaten zion esaldi honekin ixten da: "dagoeneko ez naiz ezer egitera ausartzen, debekatuta egon daitekeenaren beldur naizelako ". Zein figura literario erabiltzen da eta zein helbururekin?

5. Panela

- Ghettoei buruzko panelean testigantza batek zera dio:: "ziur naiz gizakion hizkuntza ez dela guk ghettoetan ezagutu genuen izugarrikeria azaltzeko gai". Testigantza hau zalantzan jartzeko asmorik gabe, izugarrikeria hori adierazten saiatuko gara(ez deskribatzen) literatura sorkuntzaren bidez. Bakoitzak genero bat aukeratuko du: poema, saiakera edo narrazioa, hala ere poetikoa gomendatzen dugu, dakizuen bezala hizkuntzaren funtzio adierazgarria errazten duelako.

6. Panela

- Panel honen izenburua *"Juduen arazoaren behin betiko konponbidea"* da, Naziek sarraskia aipatzeko erabiltzen zuten esamoldea. Bila itzazu hiztegian *"konponbidea"* eta *"arazoa"* hitzen adiera ezberdinak eta baloratu hitzen erabilera egokia ote den.

7. Panela

- *"Pijama marradun mutikoa"* liburuan eta panel honetan, Auschwitz-etik bizirik atera ziren haurren argazki bat agertzen da. Haurrek, eleberriko protagonistak pijama batekin nahastu zuen arropa daramate soinean. Argazki hori ikusi ondoren, uste duzu eleberriko bi haurren arteko harremana errealista dela? Auschwitz-en gerta zitekeen ala zentzu sinboliko-literarioa du?

8. Panela

- ¿Egin al duzu inoiz trenez bidaiarik? Bidaia horren oroitzapenen eta inpresioen deskribapen labur bat egin. Uste duzu baduela antzekotasunik trenak judutarrengan eragin zituen bizipenekin?
- ¿Zer egiten ari dira irudian agertzen diren haurrak?
- Saiatu argazkian lehena dagoen haurraren sentipenak edo pentsamenduak deskribatzen. Nola sentitzen ote da? Zer ari ote da pentsatzen?

9. Panela

- Gogoratu erakusketan agertzen den Clare Parker Hungariako neska judutarraren testigantza[…] *"Ianetik bueltako bidean, gelditzeko baimena ematen ziguten, alemanak eseri egiten ziren, txakurrak ere bai eta guk belarra eta hirustak jaten genituen…. Beste gauza bat: nik koltxoitik birrindutako papera ateratzen nuen, lisatu egiten nuen eta bertan marraztu. Janari plater bat margotzen nuen eta norbaitek esaten zuen: oh! Margotuko al zenuke ogi-xerra eder bat? Janariarekin erotuta zeuden. Beti zenuen buruan janaria. Edota sagar bat, margotu egiten nuen hori nahi bazuten. Etengabe pentsatzen genuen janarian"*
- Gure mundu honetan, eta bizi garen egoera erosoan, irudimenaren paperak aisialdiarekin eta entretenimenduarekin du lotura baina kontzentrazio esparruen kasuan, badirudi bere zeregina oso bestelakoa dela. Zein uste duzu izan daitekeela?

10. Panela

- Zita honek irekitzen du"Heriotzaren zain" izena duen hamargarren panela: *"zer egiten zenuten haurrek Auschwitz-en? -galdetu zidan batek orain gutxi-. Jolasean aritu?-Jolastu! Kontaketa noiz bukatu zain izaten ginen tente. Birkenauen tente izan nintzen kontaketa egiten ari ziren bitartean, "egundoko egarria eta beldurra sentitu nuen.* Iruditzen zaizu ***"Pijama marradun mutikoa"*** liburuan islatzen zen haurren bizimodua benetakoa zela?

11. Panela

- Egiaztatu ahal izan dugu John Boyne-k liburuan ez duela sarraski esparruetan gertatu zenaren kontaketa errealista egin nahi izan baizik eta irakurleen bihotzetara eta gogoetara iritsi nahi izan du sentimenduen bitartez; istorio samur baten bidez, errealitatean ezinezkoa dirudien harreman samur baten bidez, bi mutikoren arteko harremana, bata alemana bestea judua bakoitza alanbre-hesiaren alde banatan. Dena dela erakusketan Charlotte Delboren testigantza biltzen da: *"Esparruko komandantea oso gertu bizi da. Alanbre-hesiaren kanpoaldean. Adreiluz egindako etxe batean arrosa lorategiarekin eta zelaiarekin, kolore argiko begoniekin urdinez pintatutako kutxetan. Arrosen eta alanbre-hesiaren artean errausketa-labera doan bidea dago […] komandantearen seme-alabak lorategian aritzen dira jolasean, zaldietara edo baloiarekin jolasten dira edota komandante eta presoetara jolasten dira"*. Hau testigantza bat izanik, sinesgarriagoa iruditzen al zaizu John Boyneren proposamena?

12. Panela

- Saiatu Michel Celseren baieztapenaren esanahia azaltzen: *"Holokaustoaren ondoren, homosexualen testigantza sozialki entzunezina, ezinezkoa eta arriskutsua zen"*.

13. eta 14. Panelak

- Erakusketan gainera *"1940an Frantzian harrapatutako eta nazien kontzentrazio esparruetara eramandako 9.000 espainiar"* errepublikarrei buruz eta *"memoriaren betebeharrari buruz"* hitz egiten da. Ikertu ezazu Francoren gobernuaren kontrako ideiak izateagatik jazarria, eraila edo derrigorrez erbesteratua izan zen pertsonaia literarioren baten inguruan.
- Beste aukera bat izan liteke 14. panelean aipatzen diren Jorge Semprún edo Francisco Boix kontzentrazio esparruak sufritu zituzten bi espainiarren bizitzaren inguruan ikertzea.

15. Panela

- John Boyneren eleberrian, atentzioa ematen duen gauzetako bat bere amaiera da: *"Eta horrela amaitzen da Bruno eta bere familiaren istorioa. Hau guztia, jakina, orain dela denbora asko gertatu zen, eta inoiz ezingo da berriz ere antzerako ezer gertatu. Gaur egun ez."*. Erakusketa bisitatu ostean eta paneletako azkena irakurrita uste duzu berriz ere basakeria errepikatzea posible dela? Nola ulertzen duzu eleberriaren amaiera? Idazlearen ironia bat da ala erabat sinistuta esaten du esaten duena?

Testu sortzea

- Imajinatu argazkietako pertsonaiaren baten biografia. Nor zen aurretik, nola iritsi da haraino… Sortu ezazu kontakizun bat asmatu duzuna egoki antolatuz.
- Egin ezazu egunkari labur bat argazkietako haur bat izango bazina bezala. 5 egunekin nahikoa da eta lauzpabost lerro egun bakoitzeko.
- Idatzi eskutitz bat lagun bati ghettoa denetik zure auzoan gertatu diren aldaketak kontatuz.

2. PROPOSAMENA
Ikasgelan jarduerak liburuekin

¿Irakurri al duzu Anne Franken egunkaria?

1. ¿Egunkaria idazteak lagundu egin al zion Anneri?
2. ¿Zertan lagundu dio munduari lan honek?

¿Irakurri al duzu John Boyne-ren *El niño con el pijama de rayas*?

1. Begiratu ezazu 7. panelaren goialdean dagoen argazkia. Protagonistak jantzi hau pijama batekin nahasten du. Zergatik? Zein beste egoera izugarri ikusten ditu berak xaloki?
2. *"- Zeintzuk dira hor kanpoan dauden pertsona horiek guztiak? Txaboletan urrutira….denak berdin doaz jantzita- galdetu zuen azkenean Brunok-*

   Aitak burua alderatu zuen apur bat harrituta.

   - Ah, horiek - esan zuen Aitak, buruarekin baietz esanez eta irribarretsu - pertsona horiek….. beno, gauza da ez direla pertsonak, Bruno".

   Jonh Boyne, *"Pijama marradun mutikoa"*, 57. orrialdea

   Bila ezazu zuk eleberrian hainbeste izugarrikeria azaltzeko balio duen beste zatiren bat.
3. Irakurri ezazu Charlotte Delboren testoa (11. panela): Eleberrian ba al da antzekorik? Kontatu ezazu.
4. Begiratu arretaz 15. panelari: Jonh Boyne-ren eleberriaren azken hitzak azaldu:

   "Eta horrela amaitzen da Bruno eta bere familiaren istorioa. Hau guztia jakina orain dela denbora asko gertatu zen, eta inoiz ezingo da berriz ere antzerako ezer gertatu. Gaur egun, ez".

   Jonh Boyne, *"Pijama marradun mutikoa"*, 217. orrialdea

¿Irakurri al duzu Joseph Joffo-ren *"Kanika zaku bat"*?

1. Zer zentzu du izenburuak?
2. Badirudi muturreko egoeratan familia harremanak estutu egiten direla. Horrela gertatzen al da eleberrian? Konta ezazu.

Irakurri al duzu Imre Kertész-en *"Zoririk gabe"*?

1. Izenburua lanaren laburpen borobila da. Egin ezazu iruzkina
2. Protagonistak bere izena ahazten du, zer zentzu izan dezake horrek?
3. Zer aldaketa gertatzen dira bere gorputzean? Eta bere ariman?

3. PROPOSAMENA

Jarduerak liburu zehatz batekin: *"Pijama marradun mutikoa"*

A) LIBURUARI BURUZKO MAHAI-INGURUA

Galderen kutxa. Kartoizko kaxa batetik liburuaren eszenekin lotura duten galderak aterako dira(kutxa gelan zehar ibiliko duzue eta ikasleok paperak ateratzen joango zarete, boz-goran irakurri eta orduan mahai-ingurua hasiko da…)

- *"Hanka sartzen dudanean zigortu egiten naute -azpimarratu zuen Brunok. Haserrretu egiten zen i kusita arauak haurrei aplikatzen zitzaizkiela, baina sekula ez helduei (arauak helduek inposatzen zituzten arren)"*. (62. orrialdea)

  Bat al zatoz Brunok dioenarekin? Bizitza errealean ezagutzen al duzu beste adibiderik?

- Bruno eta Maria hizketan:

  "Aita ergela da- gaineratu zuen ahapeka (…)

  - Ez duzu hori esan behar. Inoiz ez duzu zure aitari buruz horrelakorik esan behar.

  - Ez dut ulertzen zergatik ez (…)

  - Zure aita gizon ona delako. Oso gizon ona. Gu guztiok zaintzen gaitu (…). Zure aitak gauza asko egin ditu. Zure aitagatik ez balitz, non egongo nintzateke ni orain?" (62-63 o.)

Zergatik hitz egiten du Mariak ondo Aitak iraganean egin zuenari buruz? Eta egun egiten duena, ondo iruditzen al zaizu? Pertsonok bi aurpegi al ditugu? Ezagutzen al duzu adibiderik?

- Pertsonaia baten izena. Deskribatu ezazu, berrasmatu: jar iezaiozu euskal izen bat, jatorrizko hiri bat, bere zaletasun gogokoena etab.
- Bi podiumak. Bietara igoko liratekeen liburuko pertsonaiak aukeratu behar dituzu:
  - Bata pertsonaia positiboekin: urrea, zilarra eta brontzea. Zergatik?
  - Bestea pertsonaia negatiboekin: urrea, zilarra eta brontzea. Zergatik?
- Bruno eta Shmuel hizketan:

  "Nik soldadu izan nahi dut Aita bezala. Soldadu on bat.
  Soldadu onak ez dira existitzen -esan zuen Shmuelek. (140. orrialdea)

  Eta zuk zer uste duzu?
- Liburuaren zein unetan erabakitzen du Brunok bere familiari zerbait ezkutatzea?

  Zein unetan esaten dio Brunok gezurra arrebari?

  Gauza bera al da gezurra esatea eta zerbait ezkutatzea? Abantailak eta desabantailak

  Jarri al dezakezu adibideren bat?
- Esploratu: Ezezaguna ikertu. Nork eta nola egiten du liburuan? Eta zuri gustatzen zaizu? Ezagutzen duzu bizipen errealik zurea edo ezagunen batena? Konta ezazu.
- Brunori atentzioa ematen dio bere etxetik ikusten dituen pertsonen janzkerak. Zuri gustatzen al zaizkizu uniformeak? Garrantzi handia al du janzkerak besteekin erlazionatzeko garaian? Azaldu ezazu zure iritzia.
- Eleberrian gauzak gertatzen dira, batzuk oso garrantzitsuak eta hala ere ez dira kontatzen. Gogoratzen al duzu bat edo beste? Zergatik uste duzu ez direla kontatzen?

B) LIBURURA ITZULI (etxean prestatu, ikasgelan irakurri edo aurkeztu).

- **Ilunpetan dagoen gela.** Liburu guztietan daude ezagutzen ez diren gauzak, ilunpetan gelditzen direnak, adibidez liburu honetan, Shmuelen aitaren pertsonaia. Nolakoa da? Zer gertatu zitzaion? Imajinatu, deskribatu, kontatu.
- **Lupa.** Liburuetan , batzuetan, nolabait esateko, txikiagotuta gelditzen dira pertsonaia batzuk. Jar iezaiezu zure lupa, handitu itzazu. Adibidez, Brunoren amona zertan bereizten da gainontzeko pertsonaiengandik? Asmatu ezazu bere biografia.
- **Paperontzia.** Batzuetan liburuetatik autoreak sartzeko asmoa zuen arren pertsonaia batzuk desagertu egiten dira, azkenean ez sartzea erabakitzen duelako. Zuk John Boyneren paperontzian begiratu duzu eta ez dagoen baina egon zitekeen pertsonaia bat aurkitu duzu.
  Nor izango litzateke?
- **Informazioa bilatu eta nazismoa zer den azaldu.** Zuk azaldu duzuna islatzen duen liburuko eszena bat aukeratu.

C) ANTZEZTEN (Etxean prestatu, ikasgelan antzeztu).

- Epaiketa Aitari.

Pertsonaia batzuk aukeratu behar dira: Ama, Bruno,, Gretel, María, Shmuel eta Furias, esate baterako.

Pertsonaiak adina ikasle behar dira. Bakoitzak bere papera etxean prestatuko du. Aitari esan behar diote zer egin zuen gaizki eta zer ondo, ikasle bakoitzaren aburuz beti ere.

Gainera ikasleetako batek epailearen papera egingo du, epaiketa gidatuko duena hain zuzen ere. Bakoitza bere pertsonaiaz mozorrotuko da.

Eta epaiketa egingo da.

- Elkarrizketa zail bat.

Bikoteka: Ikasleetako batek pertsonaia bat aukeratuko du (Kotler tenientea, Pavel, Gretel etab.) eta pertsonaiaz mozorrotuko da, Beste ikaslea kazetari bat da: gelakideen aurrean elkarrizketatuko du.

(Bikoteek etxetik ekarri dezakete prestatua elkarrizketa. Baina pertsonaiari gainontzeko ikasleek ere egin diezazkiokete galderak).

D) SORTZEN (etxean idatzi, ikasgelan irakurri).

- Eskutitz bat.

Urteak pasa dira eta Gretelek telebistan nahikoa heldua den pertsona bati egindako elkarrizketa ikusten du. Liburuan aipatzen diren gertaerei buruzko dokumental bat da. Aurpegia ezaguna egiten zaio eta Pavel/ Maria dela konturatzen da. Telebistara hots-egin eta bere helbidea lortu ondoren eskutitz bat idazten dio. Nolakoa izango litzateke gutun hori?

- Egunkari bat.

Alemaniako ikasle batzuekin ikasle trukea egiten ari zara. Egun batean Auchviz (liburuan datorren bezala) bisitatzera zoazte, une batean despistatu eta pasilloetan barna galtzen zara, estalpe antzeko batera iristen zara eta txoko batean adreilu batzuen azpian orri horixkadun koaderno bat ikusten duzu. Irakurtzen hasten zara. Shmuelen egunkaria da. transkriba ezazu Bruno ezagutu zuen egunari eta ondorengo egunei buruz jartzen duena.

- Eta…. Izan balitz?

Eta Brunok amari Shmuelekin zuen harremana kontatu izan balio, eta amak ulertu izan balu, arropa eman eta beraien azken elkartzean gertatu zena gertatu ordez, Shmuel izan balitz esparrutik ateratzen dena arropa jantzi … eta?

Idatz ezazu liburuarentzat amaierako kapitulu ezberdin bat.

SAMUEL ECKSTEIN

"Ez litzateke errezagoa izango hura posible egin zuten guztiak erotuta zeudela frogatu ahal izan banizu?"
Raúl Hilberg (1980)

Holokaustoa XX. mendeko gertaera nagusia da eta gure izaerari buruz eta gure gizartearen helburuei buruz gogoeta egitera eramaten gaitu. Horregatik ez ditugu bakarrik gertatutakoak ikasiko baizik eta gertaera honetatik ondorioztatzen diren irakaspenak ateratzen saiatuko gara era honetako gertaerak berriro gerta ez daitezen.

Biktimen ahotsari garrantzi handia emango diogu, beraien testigantzaren bitartez gertaerak nola gertatu ziren erakusten digutelako, zer nolako urraturekin eta sufrimendurekin. Justizia egiteko beharra dugu, beraiekin erantzukizuna hartu dugu.

Ondoren zenbait jarduera aurkezten ditugu denen artean gertaera honetan pixka bat gehiago sakontzeko. Primo Levik esaten duen bezala, *"ulertzea justifikatzea bezala da"*; ezin dugu ulertu, baina ezagutu egin dezakegu eta behar dugu.

Eta horretarako, erakusketari buruz zenbait galdetegi proposatzen ditugu panel bakoitzaren edukian sakontzen laguntzeko. Galdetegi hauen helburua da bisita bideratzea eta ez ordezkatzea, hortaz ez da nahikoa panel bakoitzean eskatzen den informazioa bilatzea, gauza da Holokaustora era didaktiko eta gertukoan hurbiltzeko aukera hau probestea. Eta erakusketak proposatzen duen bezala *"pentsa ezazue hori benetan gertatu dela"*. Historia ezagutzeak antzerako zerbait berriro ez gertatzea ahalbidetuko du.

1 PROPOSAMENA

1. Panela / Juduak gerra arteko Alemaniako gizartean

- Nolakoa zen 30eko urteetan Alemanian eta Austrian juduekin elkarbizitza?
- Populazioaren zein portzentaje osatzen zuten juduek gizarte hauetan?
- Aipatu itzazu ospe handiko hainbat pertsonaia judutarren izenak
- Zer nolakoa da goialdeko argazkian erakusten den elkarbizitza?
- Gustatuko litzaizuke jakitea nolakoa izan zen pertsona horien bizitza ?

2. Panela / Hitler boterera iritsi zenekoa (1933)

- Nola iritsi zen Hitler boterera??
- Zeintzuk izan ziren bere lehen ekintzak?
- *"Juduen sarraskiaren"* ideologoaren izena apuntatu.

3. Panela / **Bazterketa. Jazarpenaren kronologia** (1933-1939)

- Zein hiru *"heriotzetan"* zehazten da juduekiko nazien jazarpena?
- Zer da *"kristal puskatuen"* gaua?
- Noiz aldarrikatu ziren eta zer ezartzen dute Nüremberg-eko legeek?

4. Panela / **Jazarpenaren testigantzak**

- Anne Frank-ek bere egunkarian aipatzen dituen juduen aurkako neurrietakoren bat aipatu.
- Deskriba itzazu behean ezkerraldean dagoen argazkian agertzen diren bi gizonen keinuak eta sentimenduak. Nola uste duzu sentitzen zirela?

5. Panela / **Ghettoak** (1939-1942)

- Nazien erregimenaren hedakuntzak izan al zuen eraginik Bigarren Mundu Gerraren sorburuan?
- Zer da ghetto bat?
- Zein da Varsoviako ghettoaren tamainaren eta bertan zegoen populazio dentsitatearen arteko erlazioa?
- Zenbat pertsona atera ziren bizirik Varsoviako ghettotik?
- Arreta ipini goialdean dagoen argazkian agertzen diren haurrei, beraien begiradak, arropak, etab. Zer uste duzu espero dutela? Zer helarazten dizu? Zer egiten dute gainontzeko pertsonek?

6. Panela / **"Azken soluzioa"** (1942.enetik)

- Zer da *"azken soluzioa"*?
- Zein ezberdintasun dago kontzentrazio esparruen eta sarraski esparruen artean?
- Zertan zetzan deportazioak?

7. Panela / Auschwitz. Beste guztien gainetik zegoen sarraski esparrua.

- Zein zen presoen identifikazio sistema kontzentrazio esparruetan?
- Zein unetan abiarazi zituzten gas isurketa masiboak?
- Nork eta noiz askatu zuen Auschwitz esparrua?
- Arreta ipini presoen marka ezberdinetan:
  16. marka "kutsatutako arraza".
  Zer uste duzu izan daitekeela "kutsatutako arraza"?

8. Panela / Auschwitz. Iritsiera eta aukeraketa.

Panelaren erdialdean dagoen argazkian, emakumeak eta haurrak gainontzekoengandik banatzen dituzten unea. Ikus ditzakegu Berkovits Irina (37 urte) eta bere semea, Adalbert (5 urte). Era berean Hajnal Klein eta bere lau alabak: Lili (18 urte), Herczi (15 urte), Renee (12 urte) eta Iren (7 urte). Bizirik iraun zuten bakarrak Lili eta Herczi izan ziren. Beraien istorioaz gehiago jakin nahi al duzu?

http://www.ushmm.org/uia-bin/uia_form/photos

- Primo Levik *"Hau gizona bada"* (2005) lanean dioenaren arabera nola egiten zen sarraskirako aukeraketa?

9. Panela / Auschwitz. Heriotzaren zain (I)

Arreta ipini David Olére-ren koadroari. Bere aurpegiak, eskuak, atzealdeko eszena.

- Nola sinatzen du egileak bere obra? Zer iradokitzen dizu koadroak?
- Uste duzu testua argazkiaren isla dela?

10 Panela / Auschwitz. Heriotzaren zain (II)

Charlotte Delbo (2004) -ren *"Auschwitz eta ondoren..."* testuak

- Zer aipatzen du? Ba al du loturarik argazkiarekin?
- Zer helarazten dizute panel honetan agertzen diren haurren argazkiek? Zure ustez zein aurpegik islatzen du egokien egoera? Zergatik?

11 Panela / Auschwitz. Gas ganberak

- Zer pentsatzen zuten presoek tximiniei buruz?
- Zer esan nahi izan dezake paneleko argazkia koloretakoa izateak?

12 Panela / Beste biktimak

- Juduez gain, beste zein kolektibo desagerrarazi zituzten?
- Pierre Seelen testigantzak, gaur egungo egoeraren bat gogorarazten al dizu?

13. Panela Espainiarrak kontzentrazio esparruetan

- Zergatik hartzen ziren aberrigabetzat deportatutako espainiarrak?
- Erdiko argazkian zera irakur daiteke: *"antifaxista espainiarrak, indar askatzaileak agurtzen"* zer esanahi du? Testua beste hizkuntza batzuetan idatzia dago, zergatik?

14. Panela Oroimenaren betebeharra

- Zergatik uste duzu dioela Primo Levik paneleko testuan *" Lagerrak (esparruak) ez ziren halabeharra izan"*?
- Zein urtetan eraiki zen Holokaustoaren biktimen monumentua Gijonen? Ezagutzen al duzu? Ba al dakizu non dagoen? Bisitatzea interesgarria irudituko litzaizuke? Zergatik?

15 Panela / Izugarrikeria berriro posible al da?

- Zergatik uste duzu jarri dutela erakusketaren egileek argazki nagusian txalupa baten barruan dauden etorkinen argazkia?
- Erantzun ahal zenioke *"gaur egungo genozidioak"* testuak luzatzen duen azken galderari?
- Zerbait egin al dezakegu gisa honetako egoerekin? Zuk zer egingo zenuke?

Beste Jarduera bat

- Hau deportazioaren unea erakusten digun erakusketako beste argazkietako bat da; gizonak dira, emakumeak, zu bezala haurrak, zure anai-arrebak edo gurasoak bezalaxe pertsonak.

  Ezkerrean dagoen emakumea Yehudit Neyer da (Tolub jaiotzez), bere amaginarrebaren besotik doa. Atzean, bere senarra Avraham Neyer argazkian daudenetik bizirik iraun zuen bakarra, egun Israelen bizi da.

  Bere istorioaz gehiago jakin nahi zenuke?

http://www.ushmm.org/uia-bin/uia_form/photos

2 PROPOSAMENA

1. Panela

- Testuliburuaren laguntzarekin osatu ezazu hari kronologiko bat gerra arteko garaia markatu zuten gertaerekin (1919 -1939).

2. Panela

- Weimar-en errepublika zer zen ikertu. Nola eta zergatik egin zuen porrot?

  Zeintzuk ziren nazismoaren oinarrizko ideiak?

3. Panela

- Osatu ezazu hari kronologiko bat bazterketaren prozesuaren garai ezberdinekin eta komentatu ezazu bakoitza.

  Zer debekatzen dute Nüremberg-ko legeek? Nola zigortzen dute?

  Legeak onartu zirenean zenbat denbora zeraman Hitlerrek boterean?

  Zeintzuk dira nazien diktadurak ezarri zuen ikararen erregimenaren ezaugarriak?

4. Panela

- Eman ezazu juduen aurkako neurriei buruzko iritzi kritikoa

5. Panela

- Historian zehar juduak ghettoetan bereizi izan dituzte. Ghetto horiek zein unetan sortu ziren eta zein ezaugarri zituzten ikertzeko proposatzen dizugu. Espainian gelditzen al da haien arrastorik?

7. Panela

- Auschwitzeko sarreraren argazkian, alemanieraz idatzitako lelo bat agertzen da. Ikertu ezazu zein esanahi duen eta komentatu ezazu

  Presoen marken araberako taldekatzea egin dezakezu? Zure ustez zeren araberakoa da sailkapen hori?

8. eta 9. Panelak

- Imre Kertész-i behin eta berriz esaten diote aukeraketa egiten duen sendagilearen aurrean *"Arbeiten… Sechzehn… (lana… Hamasei)"* esan dezala. Zergatik? Lana, non? Zer egiten zuten lantegi hauetan? Zer gertatu zen lantegi horiekin? Eta buruzagiekin?
  Egin ezazu ikerketa lan bat lantegiekin gertatu zenari buruz eta azaldu ezazu ikasgelan.

10. eta 11. Panelak

Grafikoetan agertzen diren datuei buruzko gogoeta egin

- Pentsa ezazu, zenbaki horien atzean gizakiak daudela, gurasoak, seme-alabak, bizipenak eta sentimenduak. Pentsa ezazu dagoeneko ezin dutela barre egin, ezin dute elkar maitatu edo besarkatu, ezin dute hurkoaren berotasuna sentitu. Pentsa ezazu ez direla inoiz etxera itzuliko. Pentsa ezazu zer nolako hutsunea sentituko zenukeen zuk zure bizitzari zentzua ematen dion jendea betirako galduko bazenu edo zer suposatuko lukeen zure faltak zure zain dagoen jendearentzat. Imajinatu, grafikoaren barrek, handitzen doazen heinean, maitasun gutxiago esan nahi dutela, laguntasun gutxiago, fereka gutxiago, barre gutxiago… hutsune handiagoa.

12. Panela

- Eugenesia eta Eutanasia. Zer esanahi dute? Zer zerikusi dute panel honekin? Testuliburuaren laguntzarekin, egin ezazu II. Mundu Gerraren garapenari eta gatazkaren ondorioei buruzko laburpen bat.

13. Panela

- Panelean erbesteratutako espainiarrei zer gertatu zitzaien islatzen da. Zergatik egin zuten alde Espainiatik? Zein beste herrialdetara joan ziren?
  Nolakoa izan zen haien bizimodua?

14. Panela

- Historiaren ikasketa eta memoriaren betebeharra lotuta al daude? Zer esanahi izan dezake *"memoriaren betebeharrak"*? Betebeharra, norekin? Zergatik? Ez litzateke hobe, ahaztea?

15. Panela

- Gaur egungo zein genozidio ezagutzen dituzu?

Atzerriko hizkuntzen arloa (Ingelesa)

Questions about the book "The diary of Anne Frank"



1. Why did the Franks have to leave Germany?
2. Which were the rules Jewish people had to follow when the Nazists invaded Holland?
3. Why did Anne write the diary?
4. Why did some people from Holland (Biep, Miep, Mr. Kleiman……) help the Franks and the others?
5. What did you think about the end of the story? Were you expecting a different one?
6. Do you think that a story like this one should be turned into a musical? Find information about the musical based on the book that is on in Madrid

One person can make a difference

The late Irena Sendlerowa (May 2008), also known as Irena Sendler, was recognized by the State of Israel as one of the Righteous Gentiles. Born in 1910, and together with other anti-nazi fighters, she played a part in the saving of some 2500 Jewish children out of the Warsaw Guetto. She was nominated for the Nobel Peace Prize in 2007.

Read more about her incredible deeds in the web and answer these questions

1. What were Irena Sendlerowa's parentes views on race and social status?
2. What is a physician?
3. Where was Irena raised? What happened in her hometown?
4. Was it difficult for the Germans to invade Poland?
5. What was the Jews' and other minorities' fate?
6. What was Irena Sendler´s job at the time?
7. Did she decide to ignore what was happening?
8. What did the government of Poland do after the war? Why?
9. Who rediscovered Irena Sendler'personality?
10. How many people did she and her companions save?
11. In what ways was this achieved?
12. What is *Life in a Jar*?

Writing tasks

1. Write a comment of this story. Say which words you think apply to her personality, and what you find best in it. Read more information about her in the web, if you can.
2. As I have not got hold of the play written by the Kansas girls yet, your students could write a sketch with this idea: Irena Sendlerowa visits a family in the Warsaw ghetto and tries to convince them to give up their child to her so as to smuggle it out of the ghetto and certain death.

Zientzia esperimentalen arloa



Zientziak eta Kontzientzia (1927-1945)

Lana Solvayko V. Konferentziaren argazkian oinarritzen da ,1927an egin zen (17 Nobel saridun daude bertan). Askorentzat zientziaren historiako argazkirik ospetsuena da.

Hasteko, ikasle bakoitzak zientzialari bat aukeratuko du eta V. Kongresuko argazkiaren pareko argazkia egingo dute.

Ondoren, bere biografiaren alderik ezohikoenak bilatu beharko dituzu, alde zientifikoa besterik gabe aipatu egingo da, kasu askotan dakigunaren gainetik dauden datuak direlako.

Zati honetan zientziaren alde gizatiarrak nabarmentzeko asmoa dago.

Argazkian agertzen diren pertsonek oso bizitza biziak izan zituzten, askok erbestea sufritu zuten, bat edo bestek bere buruaz beste egin zuen Hitler boterera iritsi zenean, beste batzuk Hitlerrekin egin zuten lan.

Taldean lantzeko lanak ere proposatzen dizkizugu.

- Zer dira Solvay konferentziak? Aurreko konferentzietan zergatik ez zegoen alemaniarrik? Nork ordaintzen zituen? Etab.
- Zientzia eta nazismoa.
- Zergatik ez zuten lortu alemaniarrek bonba atomikoa?
- Energia nuklearraren erabilera baketsuak eta belikoak. Manhattan Proiektua.
- Zer proposatu zion Heisemberg-ek Böhr-i 1941ean egin zuten bileran?
- Elektroiak eta fotoiak da hitzaldiaren gaia eta bertan eztabaidatzen dute orain gutxi sortu den fisika kuantikoari buruz.
- Lise Meitner: Nobel saririk gabe judua izateagatik.

Argazkian:
V SOLVAY KONFERENTZIA. 1927

1. Peter Debye
2. Irving Langmuir
3. Martin Knudsen
4. Auguste Piccard
5. Max Planck
6. William Lawrence Bragg
7. Émile Henriot
8. Paul Ehrenfest
9. Marie Curie
10. Hendrik Anthony Kramers
11. Edouard Herzen
12. Hendrik Antoon Lorentz
13. Théophile de Donder
14. Paul Adrien Maurice Dirac
15. Albert Einstein
16. Erwin Schrödinger
17. Arthur Holly Compton
18. Jules-Émile Verschaffelt
19. Paul Langevin
20. Louis-Victor de Broglie
21. Charles-Eugène Guye
22. Wolfgang Pauli
23. Werner Heisenberg
24. Max Born
25. Charles Thomson Rees Wilson
26. Ralph Howard Fowler
27. Léon Brillouin
28. Niels Bohr
29. Owen Willans Richardson

Etika era Hiritartasun saila



Erakusketa osatzen duten kartelak arretaz begiratu. Gauza da testuak patxadaz eta arretaz irakurtzea eta argazkiak ondo begiratzea. Bertan agertzen zaiguna arretaz eta begirunez jaso behar dugu, horregatik kartelak ikusten ditugun bitartean isilik egotea komeni da.

1. LANA

Irudietako asko hunkigarriak dira eta pertsona bakoitzarengan emozio ezberdinak sortarazten ditu. Erabili hurrengo taula zuretzat erakusketako 3 irudirik esanguratsuenak zeintzuk diren apuntatzeko. Egin ezazu gauza bera karteletan irakurri dituzun hiru esaldi zuretzat esanguratsuenekin.

	Irudiak	Esaldiak
1. Kartela		
2. Kartela		
3. Kartela		
4. Kartela		
5. Kartela		
6. Kartela		
7. Kartela		
8. Kartela		

	Irudiak	Esaldiak
9. Kartela		
10. Kartela		
11. Kartela		
12. Kartela		
13. Kartela		
14. Kartela		
15. Kartela		

2 LANA

Idatzi ezazu izenburu bat edo aipamen labur bat aukeratu duzun irudi bakoitzarentzat. Arrazoitu ezazu aukeraketa.

3 irudi (Izenburua edo aipamena)	
3 esaldi (azalpena)	

3. LANA

1948. urteko abenduaren 10ean, Nazio Batuen Erakundeko batzar orokorrak Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala onartu eta aldarrikatu zuen. Hau diote lehendabiziko eta azken atalek:

- *" 1. atala: Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute.*
- *"30. atala. Aldarrikapen honetan jasotako ezertan ezingo da ulertu Estatuari edo talde edo norbanakoren bati Aldarrikapen honetan bertan adierazitako edozein eskubide eta askatasun deuseztatzeko ekintzak edo jardunak burutzeko eskubidea ematen zaionik.*

Zer esaten dizute atal hauek eta onartu zen datak, erakusketa bisitatu ondoren?

(Idatz ezazu erantzuna beste orrialde batean)

4. LANA

Zergatik uste duzu dela erakusketa honen izenburua: *"Pentsa ezazue hori benetan gertatu dela"*? (Idatzi ezazu erantzuna beste orrialde batean)

Ikerketa-jarduerak eta web baliabideak



Seguruenera, erakusketa bisitatzerakoan, erakusketak berak ezin erantzun ahal zituen zalantza eta galdera asko sortuko zirela. Ondoren ikerketa lan batzuk proposatuko ditugu eta era berean ikerketa egin ahal izateko baliabideak aipatuko ditugu.

1. PROPOSAMENA
Argazkien inguruan ikertu

Erakusketan agertzen diren argazkietako askoren inguruan ikertu eta sakondu daiteke. Ikasleek informazioa bildu ahal izango dute web-orrialde honetan:

http://www.ushmm.org/uia-bin/uia_form/photos



Soilik argazkiaren ondoan agertzen den zenbakia idatzi behar duzu liburuxka honetan.

2. PROPOSAMENA
Beste genozidio batzuk

http://es.wikipedia.org/wiki/Genocidio

Genozidioari buruzko atal zabala du non gogoratzen den azken 100 urteotan 40 milioi zibil izan diren pilaka erailak. Hitza definitzen du eta lotura asko eskaintzen ditu.

3. PROPOSAMENA

Holokaustoa Z. T. G-aren (zientzia, teknologia eta gizartea) ikuspuntutik

Ikasleriari Nazien garaiko Alemanian zientziak eta teknologiak izan zuten paperari buruz ikertzea proposatzen diogu. Zein neurritan egin zuten posible Holokaustoa garai hartako Alemaniako gizartearen baldintza zientifiko-teknologikoek?

DBHko 4. mailako eta Batxilergoko lehen mailako ikasleei bideratua.

Askorentzat Holokaustoa XX. mendeko gertakari nagusia da, zibilizazio proiektu modernoaren oinarriak eta garapenari buruz dugun ideia kolokan jartzen dituelako. Holokaustoaren irakaspenak ikasteak gure oinarri kulturalen zein hezkuntzaren oinarrien hauskortasuna onartzea esan nahi du. Gaiztakeria eta izugarrikeria ere beraien parte baitira, gure gizarte antolakuntza zalantzan jartzeko gai izateaz gain.

Lana Holokaustoa hein batean garai hartan gertatu zen garapen zientifikoaren eta teknologikoaren ondorioz eta gizarte antolakuntza perfektuaren ondorioz gertatu zela ikertzen ahalegintzen da. Modernotasun teknikoaren eta antolaketa burokratikoaren arteko konbinazio perfektua. Gure ustez, Nazismoaren garaian martxan jarri zen aurrerapen teknologikorik gabe eta zegoen gizarte egiturarik gabe (antolaketa sozialerako teknologia eredua), Holokaustoa ez zatekeen hain modu eraginkorrean gorpuztuko.

Uste dugu alor hauek ikastea ezinbestekoa dela, gizateriaren kontrako eraso bortitza suposatu zuen gertakari garrantzitsu honen ezagutza sakonagoa izateko aukera eskainiko digulako. Azken finean, helburua da garapen zientifiko-teknologikoaren ideiari buruz gogoeta egitea, Holokaustoak proiektu industrial-burokratiko gisa zer suposatu zuen hausnartzea, gizartearen zientziaren eta teknologiaren artean ezartzen diren loturak aztertzearen bidez. Erabakiak hartzerako orduan, balio etikoek eta hiritarren parte-hartzearen eraginari buruzko aldea ahaztu gabe, kontuan hartuz Holokaustoak genozidio moduan suposatu zuena (helburua izan baitzen eta ez beste asmo bat lortzeko bitartekoa), mendebaldeko kulturaren oinarriak sakonki kaltetu zituelarik.

Aholkatutako WEB-orrietan informazioa bilatzea gomendatzen da.

4. PROPOSAMENA
Minaren adierazpena

Helburu orokorra Holokaustoaren artearen inguruan ikertzea da.

Proposamena DBH-ko 4. mailako (Gizarte-Zientziak) eta Batxilergoko 2. mailako (Artearen Historia) ikasleei bideratua dago.

Erakusketa bisitatu ostean, ikasleek Holokaustoarekin lotura duten artistei eta bizitako ikara adierazteko erari buruzko lana egingo dute.

Lanaren helburua XX. mendearen lehen erdiko abangoardiako arteari eta lengoaiari buruz ikasi dutena praktikan jartzea da. Ikasleek lengoaia berri hori Holokaustoko artisten lanekin erlazionatzerakoan ikusi beharko dute artistek forma berriak erabiltzen ote dituzten ala kontrara, ikara adierazteko lengoaia figuratiboagoa eta errealistagoa erabiltzen ote duten. Erantzun behar diren galdera nagusiak dira: Holokaustoaren biktimek zer nolako lengoaia erabiltzen dute? Eta zergatik erabiltzen da lengoaia hori?

Ikasleek, taldeka zein bakarka Holokaustoarekin lotura duen obraren bat bilatu dezakete. Ondoren aukeratutako lana justifikatuko dute, erabiltzen den lengoaia aztertu eta XX. mende hasierako abangoardien lengoaiekin alderatu ondoren: Fobismoa, Kubismoa, Espresionismoa, Surrealismoa eta Abstrakzioa. Jarraian beren funtzioa eta esanahia ikasiko dituzte; lana gelakideen aurrean aurkeztuko da power-point bidez. Azkenik, gogoeta egin eta taldean eztabaida egingo da erabilitako lengoaiaren eta gaiarekiko egokitasunaren inguruan.

Lan hau egiteko WEB- orrialde hauek gomendatzen dira:

art.holocaust-education.net/

fcit.usf.edu/HOLOCAUST/arts/art.htm

Web orrialdeak

Yad Vashem Museoa

http://www1.yadvashem.org/education/Spanish/homepage.htm

Yad Vashem (*"Holokaustoaren Martirien eta Heroien Oroitzapenerako Aginte Nazionala"*) Nazien izuaren biktima izan ziren juduak gogoratzeko asmoarekin Israelgo Parlamentuak 1953. urtean sortutako erakundea da. Jerusalemen kokatua, oroitzapenezko hainbat monumentu ditu, museo historiko bat, artxibategi nagusi bat eta Holokaustoaren ikerketa eta dokumentazio zentro bat.

Atariak era askotako edukiak eskaintzen ditu; ia ia esan liteke Holokaustoari buruzko entziklopedia elektroniko handi bat dela.

Buenos Aireseko Holokaustoaren Museoaren Fundazioa

http://www.fmh.org.ar/holocausto/index.htm

Buenos Airesko fundazio honen web-orrialdea. Fundazioaren helburua Holokaustoa 6 milioi judu erailtzeko asmo planifikatua izan zela gogoraraztea da.

"Gure memoria" atalean juduen jazarpenari buruzko informazio zabala aurkituko duzu.

Ameriketako Estatu Batuetako Holokaustoaren Oroimenezko Museoa

http://www.ushmm.org/museum/exhibit/focus/spanish/

Ameriketako Estatu Batuetako Holokaustoaren Oroimenezko Museoa erakunde nazionala da eta bere lana: Holokaustoari buruzko dokumentazioa biltzea eta ikasketa eta interpretazioa bultzatzea da, era berean museoa, nazismoan zehar eraildako milioika pertsonen oroigarri ere bada.

Web orrialdeak dokumentu asko eta asko ditu, museoaren gida bera, irudiak, arte adierazpenak, e.a.

Gaiari buruzko esteka eta lotura asko eskaintzen ditu. Interes berezikoak dira beste genozidio batzuk aipatzen dituztenak, Armeniako, Kanbodiako edo Bosniako genozidioak kasu.

Anne Frank Museoa

http://www.annefrank.org/content.asp?pid=1&lid=4

Holanda inbaditua izan ondoren biktima bilakatu zen Anne Franki eta bere familiari eskainitako web orrialdea.

“Anne Franken Fundazio-etxe-n” zehar eta bere bizitza pasarte ezberdinetan zehar egiten du ibilbidea, oraindik gordetzen diren Anneren eta familiaren argazkiekin atondurik eta babesleku edo kontzentrazio-esparruen argazkiekin.

Beste Jarduera Batzuk

Holokaustoaren oroitzapena

URTARRILAREN 27a: HOLOKAUSTOAREN MEMORIAREN ETA GIZATERIAREN AURKAKO KRIMENEN PREBENTZIOAREN EGUN OFIZIALA

Urtarrilaren 27an Europa osoan zehar Holokaustoaren Memoriaren eta Gizateriaren Aurkako Krimenen Prebentzioaren Egun Ofiziala ospatzen da, Auschwitzeko kontzentrazio-esparruaren askatzeagatik aukeratutako data, 1945ko urtarrilaren 27a.

Espainiako hainbat instituzio publikoek oroitzapenezko ekintzak antolatzen dituzte.

Maiatzaren 5a: Mauthausen esparruaren askatzearen oroitzapena. Cervigonerako bidean dagoen monolitoan ekitaldia. Gijón.

Literatura lehiaketak

SEFARAD-ISRAEL ETXEA LEHIAKETA

Sefarad-Israel- etxeak 12 urtetik 16 urtera arteko gazteentzat literatura lehiaketa antolatzen du. Parte hartzeko lehenengo pertsonan idatzitako kontaketa bidali behar da; hau gainditze, eskuzabaltasun eta heroismo egoera bat bizi duen haur baten bizitzari buruzkoa izan behar da.

http://www.casasefarad-israel.es/#

ESKUALDEKO LEHIAKETA "MEMORIA ETA DUINTASUNA SHOA-REN BIKTIMEI" (HOLOKAUSTOA)

http://www.zivialubetkin.es/Premios.html

Bizirik atera zirenekin elkarrizketa

Biktimekin topaketak: bizirik iraun zutenak eta ahaideak. Biktimen elkarte batekin jarri gintezke harremanetan:

www.amical-mauthausen.org

Ikastetxeetan erabiliko diren materialen edizioa (bideoa, aldizkaria, etab.)

Zer gogoratzen duzu?



Hau erakusketa bisitatu ondoren ikasleentzat galdetegi proposamen bat da.

- Zein da erakusketaren izenburua? Nork antolatu du?

.....

- Definitu ezazu bakoitzak esan nahi duena:

a) Garbiketa etnikoa	.....
b) Kontzentrazio-esparrua	.....
c) Ghettoa	.....
d) Holokaustoa	.....
e) Genozidioa	.....

- Azpimarratu ezazu Holokaustoa gertatu zen garai historikoa:

  XIX. mendearen bukaera

  1914-1917

  1933-1945

  1939-1945

  1950-1954

- Zein herrialde edo herrialdek izan zuten protagonismo nagusia gertaera honetan?

.....

- Aipatu itzazu gertaera historiko honetan parte hartu zuten pertsonaia batzuk.

.....

- Zein talde izan dira Holokaustoaren biktimak?

.....

- Zein da erakusketa guztitik gehien gogoratzen duzun argazkia?

.....

- Zergatik?

.....

- Idatzi ezazu zure iritzia bisitari buruz

.....

.....

.....

.....

Eman ezazu iritzia erakusketari buruz

"Gustatu egin zitzaidan, iruditzen zait mundu guztiak ezagutu beharko lukeela ondo gertatu zena berriz ere errepikatu ez dadin. Hunkigarriak egin zitzaizkidan testigantza asko irakurri eta irudi asko ikusi nituen, oso gogorrak egin zitzaizkidan guztiak ere".

Lucia Colomo. 16 urte.

"Oso erakusketa ona iruditu zitzaidan, pertsona haiekin guztiekin zer gertatu zen hobeto ulertzen laguntzen diguna, eta garrantzitsuena: ez ahazten laguntzen digun erakusketa".

Miriam Barrientos. 15 urte.

"Erabat beharrezkoa iruditzen zait eta oso interesgarria izan da Holokaustoa eta bere ondorio guztiak argi ulertu ahal izan ditut, eta horrek inguruan dudan mundua kritikatzen lagundu dit".

María Crespo. 15 urte.

"Oso ona, gauzak oso argi esaten ditu eta berriz ere horrelakorik gerta ez dadin mundu guztiak ezagutu beharko lituzkeen kontzeptuak azaltzen ditu".

Arturo Cueva. 15 urte.

"...Bizirik iraun zutenen edo hildakoen testigantzak egoera hura bizi izan zutenen pentsaera islatzen dute eta beraiek azaltzen dute beste inork baino hobeto bizi izan zuten infernu haren nondik norakoa".

Diego Martínez. 16 urte.